

Hitza

Esanahia

adarra jo	iseka egin burla egin, trufatu
adindu	urte askokoa
adulterio	desleialtasun, fideltasun eza
aguazil	udaltzaina
ahaidetasun	senidetasuna
ahaltsu	indartsua
ahitu	agortu, eralgi
aho batean esan	argi eta garbi adierazi
ahoa bete hortz	harrituta
aise	erraz
aje	<i>atxakea</i> , mina
akabu	hondamendia
akitu	oso nekatuta, unatuta
aldaba	atea jotzeko burdin pieza
alproja	ganorabako alferra
amodioa egin	sexu ekitaldia, txortan egin
andana	mordoa, piloa
anfitrioi	etxera gonbidapena egilea
antzutasun	esterilitatea, umerik eduki ezina
arbi	naboa (baratz landarea)
ardandegi	upeltegia, bodega
arrosario	otoitz jarduna
artean	oraindik (irag.), orduan
asaldura	aztoramena, inpresioa
ase	beteta sentitu

Hitza	Esanahia
atarramentu	etekina, probetxua
atso	emakume zaharra
axota	boligrafoa, bolaluma
azkoin	dranbala, <i>tuerka</i> (torloj + azkoin)
baranda	eskudela, oratzeko ertza
barreiatuta	sakabanatuta
beata	emakume dohatsua, santa
bederen	behintzat, behinik behin
behatz	atzamarra / (oinetako) hatza
behingoz	halako batean, azkenean behintz
bekozko	kopetilun, haserre aurpegia
berantiar	berandukoa
bere kasa moldatu	bere kontura, bera bakarrik
bere onetik atera	amorratu, sutan jarri
berealdiko	itzela, apartekoa
bermatu	apoiatu
berriketan	hizketan, solasean
berritsu	hitzontzia, berbalapikoa
bertsu	antzekoa, parekoa
besteratuta	aldatuta, mudatuta
beta	denbora
bezero	klientea
bide	antza, dirudienez
bidegabekeria	injustizia
bilbe	trama

Hitza	Esanahia
biluz	biluzik, larrugorritan
biraoaka	maldizioka, juramentuka
bolero	kantu pausatua, dantza egiteko
borborka	bizi-bizi, gal-gal
brodatu	bordatu, azpatu
bulkada	bultzada, <i>inpulsoa</i>
buru-belarri	jo eta ke, eginahaletan
burualde	mahaiburua (<i>cabezera</i>)
buruaz beste egin	suizidatu
burugabe odolgoose	kriminal zoroa
dekadente	gainbeheran etorria
dendostea	dendaren atzealdea, <i>trastienda</i>
desenkusatu	zuritu, aitzakia jarri
diosal	agurra□
doi-doi	ozta-ozta, justu-justu
doilor	zitala, gaiztoa
doluminak eman	atsekabea edo samina adierazi
egitandi	balentria, ekintza gogoangarria
egoiliar	residentea, maizterra, inkilinoa
egonarri	pazientzia
ehortzi	hilobiratu, lurperatu
eitegabe	forma gabe
eldarnio	delirioa, sukar ametsa
eltze	lapikoa
erakusleiho	<i>eskaparatea</i>

Hitza

Esanahia

erakusmahai	mostradorea
ernaldu	sortu, bizitza eman
erraietaraino	barru-barruraino
errain	semearen emaztea (<i>nuera</i>)
erregosi	su txikian frijitua (<i>estofar</i>)
erreparoa eman	lotsa antzekoa sentitu
errepresaliatu	mendekuzko zigorra jasan/ezarri
erresalbu	erreserba
errespetuz	adeitsu, begirunez
erresumin	oinaze-amorru sentipen gordea
erretolika	hizketa luze eta aspergarria
erretore	apaiza, abadea
errezel	gortina
errizino	akain-belarrezko olio laxantea
erromes	ibiltari erlijioso, peregrinoa
esamesa	txutxu-mutxua
eskarmentu	esperientzia
ezagun izan	argi dago, begi bistakoa izan
ezjakin	jakin gabe
ezkaratz	atondoa, halla
fardel	paketea, maleta
fedemaile	notarioa, <i>fedatario</i>
fideikomiso	herentzia norbaiti utzi kudeatzek
fortuna	aberastasuna, dirutza
gakorde	ganzua (sarrailak bortxaz irekitz

Hitza	Esanahia
galanki	ederki, ederto batean
garbitu	hil, akabatu
gogaikarri	ernegatzekoa, astuna, jasangaitz
gogaitu	nazkatu, ernegatu, ia sumindu
gupidagabe	ankerra, krudela
gutxiespen	mespretxua, erdeinua, destaina
hamaikagarrenez	frankotan, askotan, maiz
hanpatu	puztua, harroa
haragikoi	lizuna, lohia (<i>obseso</i>)
hats	arnas kirastua (<i>mal aliento</i>)
haxix	droga mota (marihuana)
hazka eta hazka	arraskatzen
hazpegi	aurpegi ezaugarriak (<i>rasgos</i>)
herabe	lotsatia
hil hurren egon	hilzorian egon
histeriak jota	urduritasun kontrolgabea sartut
hitzeman	agindu, promes egin
hurko	norberaren hurrengoa (<i>prójimo</i>)
hurrupa	zurruta, tragoa
ifrentzu	atzealdea
igurikapen	itxaropena
ika-mika	eztabaida, sesioa
inondik ere	ziurrenik, zalantza barik
intziri	aienea, hasperena
isekaz	burlaka

Hitza	Esanahia
iskanbila	sesioa, kalapita
iturbegitxo	ur txorrotxoa
itzaltsu	ospe handikoa, errespetagarria
izapide	tramitea
izpiliku	belatxeta (lore usaints, <i>lavanda</i>)
jengibre	landare usaintsua, zapore minek
jomuga	helburu
kalabazak eman	eskariari ezezkoa adierazi
kalamastra	destartalatua, hondatua
kantoi	izkina, txokoa
kapilau	apaiz arduraduna (egoitzan...)
karranpak eduki	kalanbrea, gihar uzkurdura ming
kaskamoztu	ilea txiki-txiki ebaki, <i>rapatu</i>
katramilatu	endredatu, korapilatu
kaxakisketa	kutxatila kisketaduna
kitzikatu	eragin, bultzatu
kliskatu	begiak itxi-ireki
komeriak izan	gatazkatxoa izan, <i>liao</i>
kondar	hondakina, arrastoa
kopetilun	triste, goibel
krespoi	(dolu) xingola
kuiatxo	kalabazina
laido	iraina, mespretxua
lain	adina
lastaira	koltxoia, matalaza

Hitza

Esanahia

lausotu	zehazgabetu, difuminatu
lekaiame	moja
leporatu	egotzi, erantzule egin
likits	lizuna, txerri zikina
lizunkeria	indezentzia, gauza lohia
loezin	insomnioa
lozorroan egon	lo sakonean, lo seko
mahuka	manga
maisutza	irakasle lana
maitale	amorantea, ezkutuko amorosa
makal	ahul, gaixo
makur	doilorra, zitala, gizatxarra
mardul	sendo, lodi, ugari
margul	zurbila, kolorea galdu duena
mertzeria	josteko gaien denda
montxino	
mortu	bakartia, inor gabea
mozkin	ebakiak, rekorteak
muino	mendi gaina, zapal antzekoa
mukizu	umegorria, umemokoa
mukuru	goraino, gainezka
musuketa	musu piloa, musu eta musu
nahigabetu	atsekabetua, penatua
nazka-nazka egin	asper-asper egin, kokoteraino
nekez	ozta-ozta

Hitza	Esanahia
ñabartu	destakatu, garrantzia eman
odolki	odolostea
ogasun	Hacienda
ohaide	maitalea, amorantea
onibar	ondasun higiezia (<i>inmueble</i>)
orban	mantxa, zikingunea
oroimin	nostalgia
orro	garrasia, marrua, makakorroa
orube	lursaila, eremua
osin	putzua, zulo handia lurrean
pasadizo	gertaera, anekdota
patrika	poltsikoa, sakela
patu	zoria, adurra
printza	argi izpia, distira
proxeneta	emagalduen nagusia
salatari	akusatzeko duena (<i>chivato</i>)
samindu	nahigabetua, atsekabetua
sarraila	irekitzeko-ixteko mekanismoa
sasiko	ilegitimoa, ezkontzaz kanpoko
senperrenak ikusi	gorriak ikusi, oso txarto pasatu
so egon	begira egon
soildu	ezer gabeak, hosto barik
sosa	dirua
soslai	silueta
subertsibo	ordena ezarria aldaraztekoa

Hitza

Esanahia

suhartasun	inpetua, kemen bizia, pasioa
suhi	alabaren senarra (<i>yerno</i>)
tankera	antza, itxura
temati	setati, burugogor, egoskor
tentu	kontu, arreta
tiradera	kajoia
toles	izurra, zimurra
torrada	(ogi) esne-frijitua
tupustean	ustekabeen, kolpean
txarro	pitxerra, jarroa
txatartegi	<i>chatarrerria</i>
txepel	inozoa, kakatia, beldurtia
txera izan	karinoa, afektibitatea
txitxirimitxiak	askotariko gauzatxoak
txolinduta	txispatuta, piripi, kokolotuta
txora-txora	zoratuta
txoriburu	kaskarina, burubakoa
ugazaba	nagusia, patroia
uraza	letxuga
urdanga	emagaldua, puta
urrin	usaina, aroma
xal	zapi handia, sorbalda gainerako
xarma	enkantua, lilura
xehetasun	ñabardura, detailea
xingola	zinta

Hitza

Esanahia

xukadera

toalla

xuxurlaka

ahapeka, murmurika

zantzu

aztarna, seinalea

zendua

defuntua, hildakoa

zerbitzari

mirabea, otseina

zerraldo egon

hilda

zigarroa bildu

zigarrotxoa liatu

zira

euritarako kapusaia

zirin

kaka bigun-biguna (hegaztiena)

zirkinik ez egin

mugimendu txikienik ere ez egin

zokomiran

ikusmiran

zozotuta

lelotuta

zuhurtzia

tentua, prudentzia

zurruntasun

gogortuta bezala

zurtuta geratu

harrituta, zur eta lur